



PREMIOS
**Toribio
Echevarria**
SARIAK
edición 35 edizioa

ONARRIAK

“Startupak eta Enpresa Ekimenak”

“Enpresa Berritzailea”

“Eibarko Enpresa - “Made in Eibar”



35. EDIZIOA TORIBIO ECHEVARRIA SARIAK

“Ekintzailetza Berritzaileari Euskadi Sariak”

Eibarko Udalak, Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailaren zuzendaritzapean, eta Bic Gipuzkoak "Toribio Echevarria" sarien 35. edizioa sustatu eta babesten dute, erakunde hauekin lankidetzan:

- Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Ekintzailetza eta Nazioartekotze Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Saila
- SPRI
- Gipuzkoako Bazkundera
- Elkargi
- APD (Asociación para el Progreso de la Dirección)
- Debegesa
- Enpresa elkarteak: CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA

Sari hauen bidez, euskal enpresa-sarearen ekimena, berrikuntza, gaitasun ekintzailea, sormena eta enpresa-garapena sustatu eta aitortu nahi dira, berrikuntza teknologikoari garrantzi berezia emanaz.

Sari hauek definitzen dituen filosofiarekin jarraituz Euskal Herriko industria-ehunaren berrikuntza-kultura eta modernizazioa garatzeko, sormenaren eta berrikuntza teknologikoaren bidetik doazen ekintza guztiei baita enpresa-errealitate izan litezkeen “asmo” guztiei ere, bideak zabaltzen, laguntzen eta horien aldeko apustu egiten jarraitzen dute Eibarko Udalak eta Bic Gipuzkoak.

Helburuak

- Enpresa eta asmo berritzaileak sustatu.
- Ekintzailearen irudia bultzatu eta hedatu.
- Lana sortzen lagundu.
- Gure herrian, enpresa edo lantegi berriak ahalbideratu.
- Berrikuntza teknologikoa enpresan sustatu.

Kategoria “Startupak eta Enpresa Ekimenak”

Norentzat:

- Startup berritzaileak eta/edo zientifiko-teknologikoak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - Gehienez ere bost urteko antzintasuna, eratze-datatik.
 - 0,5 M €-tik beherako fakturazioa.
 - Hazi-erronda fasean edo venture kapitaleko inbertsioaren lehen txandan egotea.
 - Egoitza soziala eta instalazio operatiboak Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako edo bertan bizi diren banako edo taldeko ekintzaileak, enpresa-ekimen berrien proiektuak aurkezten dituztenak, batez ere berritzaileak eta/edo zientifiko-teknologikoak.

Sariak:

- **Eibarko Udala:** 12.000 € eskudirutan.
- **Euskadiko BICen** bidez, laguntza-programetarako sarbidea izatea, ekimen berriaren bideragarritasun-azterketa egiteko, hura martxan jartzeko eta garatzeko, baldin eta deialdi bakoitzari dagozkion baldintzak betetzen badira.
- Doaneko harpidetza **APDn**, urtebetez; horrek dakar:
APDek Eskualde guztietan antolatzen dituen jardunaldietara doaneko sarrera eta APDk Ipar-Eskualdean antolaturiko mintegi, ikastaro eta Executive mintegietarako sarrera harpide diren enpresentzat bezala. Era berean, marketin digitaleko (branding eta lead-ak geureganatzea) eta in Company prestakuntzako zerbitzuetarako sarbidea izango du elkarteak enpresa bazkideei eskaintzen dien heinean.
- **Gipuzkoako Bazkundera:** antolatzen dituzten prestakuntza-ekintzetara doan sartzeko aukera, gehienez ere 100 ordu.
- **ELKARGI:** finantza-aholkularitzako bi saio, enpresa irabazlearen beharren eta prestakuntza-ekintza finantzario baterako sarbidea ikastaroen eskaintzaren barruan.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **Laburpen exekutiboa**, bi orrialdekoa gehienez, asmo/proiektuaren balore nagusiak azalduko dituena.
- **Enpresa Plana** prestatzeko, “Enpresa Planaren Gida” dokumentua erabil daiteke (sarien webgunean dago). Dokumentuaren luzera ez da 40 orrialdetik gorakoa izango. Proiektuaren heltze-maila ez bada nahikoa Enpresa Plan bat aurkezteko, “Startupak eta Enpresa Ekimenaren galdetegia” bete beharko da (sarien webgunean eskuragarri).
- Enpresaren eta talde ekintzailearen **laburpen historiko** laburra.
- Beste dokumentu batzuk:
 - **Startupak**:
 - ✓ **Ekonomia Jardueren gaineko Zergan** alta.
 - ✓ Sozietate-aldaketen **eskriturak** eta, hala badagokio, eranskin eguneratuak.
 - ✓ **Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko** ordainketetan egunean egotearen ziurtagiriak.
 - ✓ **Fakturazio**-bolumenaren **ziurtagiria**.
 - **Enpresa ekimenak**:
 - ✓ Talde ekintzailearen **errolda-ziurtagiria**.

Kategoria “Enpresa Berritzailea”

Norentzat:

- Negozio-unitate berri bat edo enpresa-jarduera berri bat sortzeko fasean dauden izaera teknologikoko enpresa berritzaileak.
- Startup berritzaileak eta/edo zientifiko-teknologikoak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - Gehienez hamar urteko antzinatasuna, eratzen den egunetik.
 - 0,5 M €-tik gorako fakturazioa edo, fakturatzen ari ez badira ere, hurrengo ekitaldietan produktua/zerbitzua heltzeko eta merkaturatzeko prozesua bermatuko duen sozietate-egitura bat izatea.
 - Egoitza soziala eta instalazio operatiboak Euskadin izatea.

Sariak

- **Eibarko Udala:** 12.000 € eskudirutan.
- **Euskadiko BICen** bidez, laguntza-programetarako sarbidea izatea, ekimen berriaren bideragarritasun-azterketa egiteko, hura martxan jartzeko eta garatzeko, baldin eta deialdi bakoitzari dagozkion baldintzak betetzen badira.
- **Nazioarteratzeko laguntza:** SPRI Taldeko Basque Trade & Investment (Nazioartekotzeko Euskal Agentziak) bere Kanpo Sareak estaltzen duen merkatuetako batera sartzeko proiektua egitea. Proiektu hori merkatu-prospekzio batean eta/edo balizko bazkide komertzial, industrial edo teknologikoen bilaketa batean zehaztuko da.
- Doaneko harpidetza **APDn**, urtebetez; horrek dakar: APDek Eskualde guztietan antolatzen dituen jardunaldietara doaneko sarrera eta APDk Ipar-Eskualdean antolaturiko mintegi, ikastaro eta Executive mintegietarako sarrera harpide diren enpresentzat bezala. Era berean, marketin digitaleko (branding eta lead-ak geureganatzea) eta in Company prestakuntzako zerbitzuetarako sarbidea izango du elkarteak enpresa bazkideei eskaintzen dien heinean.
- **Gipuzkoako Bazkundera:** antolatzen dituzten edozein trebakuntza-ekintzatara doan sartzeko aukera ematen du, gehienez ere 100 ordura arte.
- **ELKARGI:** finantza-aholkularitzako bi saio, enpresa irabazlearen beharren eta prestakuntza-ekintza finantzario baterako sarbidea ikastaroen eskaintzaren barruan.

- Enpresa irabazlea kokatuta dagoen lurraldeari dagokion Enpresa Elkarten Saria:
 - **ADEGI:** Fabrikako Coaching zerbitzuaren doako sei saioez goatzeko aukera ematen du, helburu profesionalak betetzen laguntzeko, baliabide eta trebetasun pertsonalak sustatuz, bai eta Ekintzaileen Forora eta ADEGIren jarduera eta aholkularitza orokor osora urtebetez doan atxikitzea ere.
 - **CEBEK:** enpresa CEBEK Ekinean ekimeneko kide izatea, honek sortu berri diren enpresei zuzendutako ekimen zehatza eskeintzen ditu, eta aldi berean, CEBEKeko jarduera guztietan parte hartzea onartzen du.
 - **SEA:** SEA Arabako Enpresen kide izatea, honek sortu berri diren enpresei zuzendutako ekimen zehatza eskaintzen ditu, eta aldi berean, SEAKo jarduera guztietan parte hartzea onartzen du.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **Laburpen exekutiboa**, bi orrialdekoa gehienez, asmo/proiektuaren balore nagusiak azalduko dituena.
- **Enpresa Plana.** Gida hori egiteko, “Enpresa Planaren Gida” dokumentua erabil daiteke (sarien webgunean dago). Dokumentuaren luzera ez da 40 orrialdetik gorakoa izango.
- Enpresaren eta talde ekintzailearen **laburpen historiko** laburra.
- Beste dokumentu batzuk:
 - ✓ **Ekonomia Jardueren gaineko Zergan** alta.
 - ✓ Sozietate-aldaketen **eskriturak** eta, hala badagokio, eranskin eguneratuak.
 - ✓ **Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko** ordainketetan egunean egotearen ziurtagiriak.
 - ✓ **Fakturazio**-bolumenaren **ziurtagiria**.

Kategoria “Eibarko Enpresa – Made in Eibar”

Norentzat:

- Enpresa-ekimenak, enpresa sortu berriak eta negozio-lerro berriak, izaera berritzaile eta/edo zientifiko-teknologikoko barne-ekintzailtzako prozesu baten emaitza.
- Lehentasunezko jarduera-eremuak: industria aurreratua, sportech eta trantsizio ekologikoa.
- Lantoki nagusia Eibarren izan beharko dute. Hautagaitza aurkezterakoan hala ez bada, idatziz konpromisoa hartu beharko dute saria ematen zaienetik gehienez ere urtebeteko epean eta gutxienez bi urteko epean Eibarren instalatzeko.

Oharra: *Sari hau aurreko bi kategorien osagarria izan daiteke. Beraz, aurreko bi kategorietako edozeinetara aurkezten den ekimen bati eman ahal izango zaio, baldin eta Eibarko kokapenari eta lehenetsitako sektoreei dagozkien baldintzak betetzen baditu.*

Sariak:

- **Eibarko Udala:** 12.000 € eskudirutan.
- 10.000 €-rainoko **bonu teknologikoa**, produktuak garatzeko, zerbitzuak emateko, prototipoak eta/edo patenteak prestatzeko eta testatzeko, ahal dela Teknikerrekin edo BRTAn integratutako beste zentro teknologiko batekin lankidetzan.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Aurkezten den kategoria zehatzean eskatzen diren agiriez gain:
 - Sari osagarri hori eskuratzeko interesa eta Eibarren bizitzeko konpromisoa jasotzen dituen idatzia.
 - Bonu teknologikoarekin garatuko den proiektua deskribatzen duen memoria, Sarien webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

Hautagaien balorazioa

- Lehenengo fasean, aurkeztutako proiektuak erakunde babesleetako adituek osatutako Batzorde Teknikoak ebaluatuko ditu.
- Epaimahaiak ebaluatuko ditu ondoren lehen fase honetan hautatzen diren proiektuak, eta beharrezkotzat jotzen dituen hautagaiei elkarrizketa pertsonalak egiteko deialdia egin ahal izango du.
- Baloratzeraoan, ondoko alderdi hauek oso kontuan hartuko dira:
 - Ekintzaile/enpresa ekintzailearen profilaren eta enpresa-proiektuaren arteko koherentzia.
 - Produktu/zerbitzuaren berrikuntza-maila eta bere bideragarritasuna merkatuan.
 - Epe ertainean hazteko, aberastasuna eta lanpostu gaituak sortzeko aukerak.

Kontutan hartzekoak

- Sarien antolatzaileek eskubidea dute hautagaiak kategoriatara edo bestera bideratzeko, zein kategoriatara aurkeztu diren kontuan hartu gabe. Erabakia hautagaiei jakinaraziko zaie, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak azalduko zaizkie.
- Emandako sariak gauzatzearen edo gauzatzearen balioa edizio honen eta hurrengoaren deialdiaren artekoa izango da.
- Saria eskudirutan jasotzeko, ezinbestekoa izango da Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzea.
- Enpresa batek aurkeztutako hautagaitzek pertsona fisiko bat izendatu beharko dute saridunak aukeratzeko prozesuan sortzen diren ondorio guztietarako.
- “Startupak eta Enpresa Ekimenak” kategorian, ekimena talde sustatzaile bati badagokio, pertsona fisiko bat izendatu beharko da, sarituak aukeratzeko prozesutik eratorritako ondorio guztietarako ordezkari gisa jardun dezan. Pertsona horrek Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon beharko du.
- Aurkeztutako proiektuak konfidentzialtasun osoz tratatuko ditu Epaimahaiak.
- Aurkeztutako dokumentazioan jasotako adierazpenen egiazkotasunaren erantzule bakarra izango da parte-hartzailea. Saria ematen duten erakundeek ez dute egiazkotasun hori ikertzeko edo frogatzeko obligaziorik izango. Hala ere, beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen badute, hori egin ahal izango dute.
- Onuradun izateko hautagai izango direla bermatzeko aurkeztu diren agiri guztiak bat datozela erakundeak dituen jatorrizko agiriekin.

- Horrez gain, saria ematen duten erakundeek ez dute inolako erantzukizunik izango ustiari nahi den ideiak edo parte-hartzaileak aurkeztutako edozein dokumentu jabetza intelektualaren, industrialaren edo bestelakoaren arloan hirugarrenen eskubideak urratzen baditu.
- Antolakuntzak hautagaitzei buruzko informazio orokorra zabaldu ahal izango du. Proiektu finalisten kasuan, publiko egingo den informazio gehigarriaren maila bakoitzarekin adostuko da.

Hautagaitzak aurkezteko epea

- Hautagaitzak aurkezteko epea **2025eko urriaren 9an amaituko da, 23:00etan.**

Epaimahaikideak

- EUSKO JAURLARITZA - Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila
- GIPUZKOAKO ALDUNDIA - Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Saila.
- EIBARKO UDALA - Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza Saila.
- SPRI
- APD (Asociación para el Progreso de la Dirección)
- DEBEGESA
- CONFEBASK
- ADEGI
- GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
- ELKARGI
- UPV/EHU
- BIC GIPUZKOA